

Lizarra litxarrerietan

GORBEIAKO PARKE NATURALEAN gora, hegoaldera, Badaio eta Arrato mendietan baino ez da bizi Euskal Herrian *Fraxinus ornus*, mana lizarra edo lizar loreduna. Aspaldian Araba aldera joan gabea, eta egin beharko dut bueltaxka bat lizar hau ezagutzeko aitzakiarekin. Aitzakia ez, arrazoia. Badu eta. Begira.

Azalean egindako ebakietatik isurtzen duen izerdia gozo-gozoa du. Bere horretan edan daiteke. Utziz gero azukrea hartzitu egiten da, eta alkohol bihurtu. Azukrea manosa da, eta alkohola manitola. Sagar edo mahats muztioarekin gertatzen den bezalatsu. Baten batek egiten badu, gustura dastatuko nuke.

Osasungintzan dagoenerako usu erabiltzen bada ere, etorkizun oparoa omen du; makina bat ikerketako gai dute. Jakietan ere maiz topatuko duzu E421 ezizenean ezkutatuta. Medikuek gorputzeko organoen egiturari eutsi eta ez idortzeko, baita libratzeko ere, gomendatzen dute. Jakietan antzera: horiek lehortu eta zimurru gabe mantentzeko darabilte. Adibidez, lehortutako fruituetan. Litxarrerietan ere lepo dabil. Gozokiak erakargarri garbi-distiratsu, leun eta lehor manitolaz, baita hezetasuna %98an bada ere. Okindegi-tako eta gozotegietako produktu ugari puzten du. Horiek denak



JUAN ANTONIO CAPÓ-CC BY

Oso litekeena da hauetan E421, lizar loredunetik datorren manitola, egotea.

jaten dituenaren hesteak ere bai, putz eta puzker, libratzeraino.

Lizar loredunetik ateratzen zena, gerora landare askotatik sortzen da, baita sintesi kimikoaren eta biologikoaren bidez ere. Industria kimikoan beste azukre batzuetatik abiatuta egiten dute. Naturan, bakterio, onddo, legamia, alga, liken eta landareetan badago ere, algetatik sortzen da gehienbat. Horien isurkinak %20 besterik ez du manitoletik, eta platanarenak (*Platanus sp.*) %90, baina haiena askoz merkeagoa da.

Drogak urardotzeko nahasgai ezaguna da. Kokaina, heroina, metanfetaminak. Horretarako erabiltzen denean, argotean “hau-

ren libragarria” deitzen zaio. Zenbaitek haluzinaziorako bidean arindu ederra hartuko du. Dosiaren arabera, medikuntzan ere heste-aringarria da. Aitutaren beharrik ez.

Negutegietan, hidroponikoan eta antzeko landare ekoizpen industrialetan, berriz, izozteengatik edota gatz ongarringatik gerta daitekeen xok edo estres osmotikoa kontrolatzeko erabiltzen dute manitola eta, hala, ura baliatzen dutenean kalterik ez izateko. Bai lurrari edo landareari berari emanez. Kontuz, barazki leun-distiratsuekin. Barazki eta fruitu itsusiak jan. ■





Goizper Group
Elkarlanean garatzen

Goizper, 50 urte baino gehiago, handitzen, berritzen eta gizarte eta ingurumenarekin konprometituta.

www.goizper.com Tel. 943 786 000



GOIZPER
ZURE KIDEA POTENTZI
TRANSMISIOKO OSAGAIAITAN



Goizper
Ihinzadura
ZURE KIDEA POTENTZI,
IHINZADURA ZEHATZA.

MATABI iK
OSATU iK



Goizper
Bioteknologia
NATURAN INSPIRATUA

INNOVATEE
cabe